# *OREKAON* IKASTAROA. B MODULUA
# Euskarazko komunikazioa eta gramatikako zenbait kontzeptu lantzeko

## INFORMAZIO OROKORRA

| | |
|---|---|
| **ARDURADUNA** | Justizia Administrazioko Zuzendaritza<br>Hizkuntza Normalkuntzako Atala - Prestakuntza Arloa |
| **MODALITATEA** | On-line eta aurrez aurrekoa |
| **HIZKUNTZA** | Euskara |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **DATAK** | Urriaren 15etik abenduaren 15a arte | **HARTZAILEAK** | Ikastaroa gutxienez 2HE gainditu dutenei dago zuzenduta.<br>• Kudeatzaileak, izapidegileak, laguntzaile judizialak eta auzitegiko medikuak.<br>• Lan-kontratuko langileak.<br>• Epaileak, magistratuak,bake-epaileak, fiskalak eta idazkari judizialak. |
| **IRAUPENA** | **50**[1] ordu guztira. | **AURREZ AURREKO SAIOAK** | Egunak: **urriaren15a, azaroaren 12a** eta **abenduaren 10a**<br>Tokia[2]: Bilbo, Gasteiz, Donostia<br>Ordua: **10:00 – 13:00** |
| **MATRIKULA EPEA** | **Irailaren 22tik urriaren 6ra** | **ONARTUTAKOEN ZERRENDA** | Eguna: **urriaren 8an**<br>Tokia: Intranet Sarea |
| **IKASLE KOPURUA** | Onartutako kopuruaren arabera | **TUTOREAK** | Justizia Administrazioko Zuzendaritza Hizkuntza Normalkuntzako Atala - Prestakuntza Arloa |
| **DISEINUA** | Justizia Administrazioko Zuzendaritza<br>Hizkuntza Normalkuntzako Atala - Prestakuntza Arloa | **MATERIALA** | On-linekoa eta aurrez aurreko saioetan banatuko dena. |
| **HAUTATZE IRIZPIDEAK** | Ikus eranskina. | **AZPIEGITURA** | • Ordenagailua<br>• MozillaFirefox<br>• VLC Media player sistema<br>• Justiziagelarako sarbidea |

## HELBURUAK

| | |
|---|---|
| **HELBURU OROKORRAK** | Eguneroko lanean erabiltzen diren euskarazko hainbat komunikazio- eta gramatika-kontzeptu lantzea. |

[1]**Ikastaroa egiteko, bi hilabetez utziko dugu Justiziagela irekia: urriaren erdialdetik abenduaren erdialdera arte. Ordu kopuru horren barruan daude Aurrez aurreko saioen 9 ordu ere.**

[2]Aurrez aurreko saioak hiriburuetan egingo ditugu, baldin eta **talderik sortzen bada**.

| | |
|---|---|
| HELBURU ZEHATZAK | • Oinarrizko kontzeptuak gogorarazi eta finkatzea.<br>• Zalantza sortzen duten hainbat kontzeptu argitzea.<br>• Komunikaziorako hainbat estrategia lantzea. |
| GAITASUNAK | • Ikaslea gai izango da oinarrizko kontzeptuak ziurtasunez erabiltzeko.<br>• Ikaslea gai izango da komunikazioa errazten duten hainbat estrategia erabiltzeko. |

## PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

| | |
|---|---|
| METODOLOGIA | On-lineko eta aurrez aurreko saioak uztartu egingo dira ikaslearen banakako lana bultzatzeko eta parte hartzea sustatzeko.<br>On-linen hiru arlo lantzen dira:***Hitzak*, *Aditzak* eta *Besteen esanak*.**Eta hiru arlo horiek **15 gai**ren bidez azalduko dira.<br>Gai bakoitza honelaxe osatzen da: azalpen laburrak alde batetik, eta ariketak bestetik. Ikasleari ikas-prozesuan aurrera egiten laguntzeko, azalpenetan ikus-entzunezkoak txertatu ditugu. Bestaldetik, zenbait ariketa modu automatikoan zuzenduko dira, eta beste batzuk tutoreari bidali beharko zaizkio zuzendu eta iruzkinak egiteko.<br>Aurrez aurreko saioetan ikas-prozesuaren ildo nagusia zehazteaz gain, zalantzak argitu eta edukiei lotutako ahozko oinarrizko trebetasunak landuko dira, ikasleen parte hartze zuzena eskatzen duten ariketen bidez. |
| **ON-LINE-ko EDUKIAK: GRAMATIKA, ESTILOA ETA KOMUNIKAZIIOA** | |
| 1. Gaia | Hitzak eratzeko bideak: hitz elkartuak, hitz eratorriak eta hitz mailegatuak. |
| 2. Gaia | Hitzak egoki erabili: kalkoak eta erdarakadak, neologismoak. |
| 3. Gaia | Hitzak egoki aukeratu: estilo nominala, parafrasiak eta betelana, hizkera ez-sexista, onomatopeiak… |
| 4. Gaia | Hitz egokiak aurkitu: hitzen ordainak. |
| 5. Gaia | Aditzak eratzeko bideak: aditzak eratzen, elkartzen, ***arazi***. |
| 6. Gaia | Aditzak egoki jokatzen: aditz laguntzaileak, aditz trinkoak, subjektua agerian, aspektua (atzo, gaur…). |
| 7. Gaia | Aditz jokatugabeak lantzen: ikustea, ikusten, ikusteko(a). |
| 8. Gaia | Aditzak egoki erabiltzen: paragrafoa, erdal gerundioak. |
| 9. Gaia | Aditzak ezkutatuta erabili. |
| 10. Gaia | Aditzak egoki aukeratu. |
| 11. Gaia | Zehar estiloa eta estilo zuzena definitzen. |
| 12. Gaia | Zehar estiloan idazten: konpletiboak*, -ena*, *-t(z)eko*, zehargalderak, *ote/ba*… |
| 13. Gaia | Interferentziak saihesten: *zurrumurru/seinale, baietz/ezetz, noski, segun/depende, ez duzu zertan*… |
| 14. Gaia | Estilo zuzenean idazten: *-aren arabera/-(e)k dioenez, omen, ei, bide*. |
| 15. Gaia | Modu egokian idazten: moztu eta aurreratu, hitz iragarleak, lokailuak, harridura eta adierazkortasuna… |
| | **AURREZ AURREKO SAIOAK** |
| 1. SAIOA | • Ongietorria eta nabigazioa.<br>• Ikastaroaren nondik norakoak. |

| | |
|---|---|
| | • Mintzamena landu. |
| **2. SAIOA** | • Ahozko ariketen bidez, on-lineko unitateetan landutakoa errepasatu.<br>• Ikastaroan sortutako zalantzak argitu.<br>• Mintzamena landu.<br>• Motibazioa landu. |
| **3. SAIOA** | • Ahozko ariketen bidez, on-lineko unitateetan landutakoa errepasatu.<br>• Ikastaroan sortutako zalantzak argitu.<br>• Mintzamena landu.<br>• Motibazioa landu. |
| **EBALUAZIOA** | Ebaluazioaren helburua: ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete direla bermatzea.<br>Horretarako *Ebaluazioa* ataleko ariketak hartuko dira kontuan. |
| **IKASTAROAREN BALORAZIOA** | Ikasleak aukera izango du ikastaroa bera baloratzeko, plataforman horretarako jarritako galdetegi baten bidez. |
| **ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA** | Aprobetxamenduko ziurtagiria lortzeko bete beharreko baldintzak:<br>• Gaietako ariketak: betetze-maila nahikoa izatea.<br>• Ebaluazioa ataleko ariketak egin eta gainditu.<br>• Gutxienez, aurrez aurreko bi saiotan parte hartzea. |
| **PREZIOA** | Doan |

**Eranskina: ikastaroan parte hartzeko irizpideak**

Ikastaroa modu egokian kudeatzeko baimen kopurua mugatua izango denez, hona hemen hautatze-irizpideak:

- 2HE edo horren baliokidea izatea (3HE edo 4HE edo horren baliokideak dituztenek parte hartu ahal izango dute, baina lehentasuna izango dute une horretan 2 HE edo titulu baliokidea besterik ez dutenak).

  2HE, 3HE edo 4HE edo horien baliokideren bat egiaztatua izatea.

- Bereiztutakodotazioa dutenak.
- Lan-egoerari dagokionez, hurrenkera honi jarraituko zaio:
  - Karrerako funtzionarioak.
  - Hutsik dagoen lanpostu bat betetzen ari diren bitarteko funtzionarioak.
  - Gainerako bitarteko funtzionarioak.
- Lehentasuna izango dute euskara ikasten dabiltzanak edo azken bost urte hauetan euskara ikasten ibili direnak.
- Azkenik, berdinketarik baldin bada, eskatzaileek organoan duten antzinatasuna hartuko da kontuan.